



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

## Musika argentinarrez beteko du Arriaga Antzokia *El alma en un tango* kontzertuak

- Naroa Intxausti sopranoa, Edgardo Otero bandoneonista, Alos Quartet taldea, Itxaso Sainz de la Maza pianista eta San Juan Bautista abesbatza izango ditugu Basilio Astúlezen musika-zuzendaritzapean.
- Artistek Piazzolaren tango ospetsuen bilduma bat eta Ramírezen pieza bat interpretatuko dituzte kontzertuaren lehen zatian, eta Palmeriren *Misa Tangoren* indar korala erakutsiko dute bigarren zatian.

**Bilbo, 2025eko maiatzaren 9a.**- Datorren astean, % 100ean zapore argentinarra duen gau bat bizi ahal izango dugu Arriaga Antzokian. Maiatzaren 15ean, ostegunean, 19:30ean, *El alma en un tango* kontzertuan, Jorge Luis Borges idazleak honela definitutako generoaren erakustaldi eder bat izango dugu: "... errealizazio argentinarrik zabalduna, izen argentinarra lurreko bazter guztietara lotsagabekeriaz hedatu duena".

**Basilio Astúlezen** zuzendaritzapean, **San Juan Bautista** abesbatza, **Naroa Intxausti** sopranoa eta **Edgardo Otero** bandoneonista buenosairestarra Buenos Airesko ehun auzoetan murgilduko dira, Astor Piazzolaren, Ariel Ramírezen eta Martín Palmeriren eskutik. **Alos Quintetek** eta **Itxaso Sáinz de la Maza** pianistak osatzen dute Buenos Airesera eramango gaituen taldea.

Kontzertua bi ataletan banatuta dago. Lehenengorako hautatutako erreperorioan Astor Piazzollaren obren hautaketa bat dugu, hala nola *Oblivion*, *Los pájaros perdidos*, *Adiós Nonino* edo *María de Buenos Aires*, zeinak ereserkiak baitira Argentinan. Kontzertuaren lehen tartean entzun ahal izango dugu, halaber, Ariel Ramírezen *Alfonsina y el mar* ahaztezina. Errezitalaren lehen erdian, Naroa Intxaustiren ahotsa eta Edgardo Otero (bandoneonista), Alos Quartet eta Itxaso Sainz de la Mazaren (pianista) akonpainamendu musikala izango dira protagonista, batzuetan ganbera musikak berezko duen hurbilketa batetik eta beste batzuetan, aldiz, talde gisa. Horri dagokionez, azpimarratu behar da bandoneonistak berak, Edgardo Oterok, egin dituela piano, bandoneon, soprano eta hari-taldearentzako berariazko moldaketak.

Bigarren atalean, San Juan Bautista abesbatzak hartuko du protagonismo handiagoa, Basilio Astúlezen gidaritzapean Martín Palmeriren *Misa Tango (Misa a Buenos Aires* izenez ere ezagutzen da) indartsu eta aldi berean dotorea interpretatzeko. Konposizio hori fusioaren adibide garbi bat da, argentinar soinuaren bilduma bat biltzen baitu, Meza baten organikoan egituratuta. Abesbatzak bereziki eder emango du 40 minututik gorako pieza hori interpretatzeko unean, obra oso exijentea baita ahots-erresistentziari dagokionez: atsedetik gabe abestuko dute, Naroa Intxaustik tartekatuko dituen une solista gutxi batzuetan izan ezik. Edgardo Oteroren bandoneonak jarriko du

Argentinako sonoritatea, duen edertasunagatik, entzulea liluratzen duen piezan. Erritmoari eta harmoniari dagokionez, *Misa Tango* zorrotza da, oso indartsua, eta kontraste handiak ditu lirikoagoak edo introspektiboagoak diren kantuen eta koruaren atal indartsuenen artean.

### **Fusio koherentea**

Bi zati desberdin ditu *El alma en un tango* kontzertuak: Piazzolari eskainitakoa eta bigarrena, Palmerirena. Biak ala biak ederki datoz bat, oso modu naturalean lotzen direlako estilo koherente batekin; ondorioz, entzuten erraza den kontzertu bat sortzen da, zalantzarik gabe, hilaren 15ean Arriaga Antzokira joaten diren entzuleek asko estimatuko dutena.

### **ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK**

- 21 euro (beherapenekin)
- Salgai [www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus) helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

## ***El alma en un tango***

Musika-zuzendaria: **Basilio Astúlez.**

Sopranoa: **Naroa Intxausti.**

Bandoneona: **Edgardo Otero.**

Hariak: **Alos Quartet.**

Pianoa: **Itxaso Sáinz de la Maza.**

Abesbatza: **San Juan Bautista Abesbatza.**

Informazio gehiago:  
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA  
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307  
[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)  
[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)